



(J.M. COETZEE) J.M. COETZEE/PRESS

«Bizi guztia euskararen mugimenduan eman dut»

Ohoratuta sentitzen da Txillardegi **Argizaiola** saria jasotzeagatik. Bere bizitzan euskararen aldeko lana egin duela esan digu, eta **eleberr**i bat idazten hasi dela aitortu

Azken hamar urte hauetan, Gerediaga elkarteak euskararen eta euskal literaturaren inguruan lanean aritutakoak omen du ditu Argizaiola sariarekin. Aurten, Jose Luis Alvarez Enparatza Txillardegi-rentzar izango da. Harekin hitz egiteko aitzakia aparta iruditu zaigu. Hamai-ka gaiez galdetu digu, eta

erantzun interesgarriak eman dizkigu, hala Durangoko azokaz eta literaturaz, nola euskararen egoera «gazi-gezaz» eta politikaz. Ez hori bakarrik, eleberrri bat idazten hasi den primizia ere eman digu.

Pozik al zaude Argizaiola saria emango dizutelako?
Bai. Itziar eta Jon Irazolak esan

zidaten Argizaiola saria ematen dutela, euskararen alde eta literaturaren alde egindako lana omentzeko, eta niri ematea erabaki zutela. Nik esan nien oso ohoratua sentitzen nitzela, eta eskertu nien; beraz, bihar jasokodut saria.

Zergatik uste duzu eman dizutela?
Haiek esan zuten lan orokorra-

rengatik dela. Nire ustez, nik zerbait egin badut nire bizian, izan da euskararen aldeko lana; alde batetik, nire produkzioa, euskararen aldekoa, ezaguna da; badituzte hogeita hamar bat libururik argitaraturik, eta gero, artikulua: Pruden Garziak egindako bibliografian 1.400 artikulueko gehiago agertzen dira

euskaraz... Bizi guztia euskararen mugimenduan eman dut.

Azkenaldian omenaldiz omenaldiz zabiltza. Nola bizi duzu hori guztia?

Pozgarria da, dudarik gabe, norberak ikustea bere burua aintzat hartua. Nire ustez, hemen gertatzen da nire kontra gehiegi egin izan dela, alor batzuetan behintzat, eta orain beharbada pentsatzen dute, zahardadearekin: «Honek ia ez du koska egiten». Batzuetan sentsazio hori izaten dut.

Zer iruditzen zaizu Durangoko Azokak euskal kulturaren gainean ematen duen irudia?

Irudi komertziala ematen duela esaten dute. Egia da azkenean zenbat saldu den neurtzen dela. Nik uste dut Durangoko Azoka fenomeno bakan gisa ikusiko balitz kritika horiek izango luketela funtsik. Baina ez da ger-

Durangonobedadeak 2004



Joan Mari Irigoien



Jon Arrebxe




J.M. Coetzee

tartzen abstrakzio batean, baiarik eta memento berezi batean, Berrria inkulpatuta dagoen momentu batean, zapalkera momentu batean; beraz, han indartsu agertzea, besterik ez bada, satisfakzio aldetik positiboa da. Benetan nola dago euskara? Zuk diozu ez zegoela pentsatzerik euskarak orain duen maila izango zue-nik. Etorkizuna ere baikor ikusten al duzu?

Iparraldean euskararen egoera oso txarra da; horrela segituz gero, hemendik hogeie urtera euskara iraganeko gauza bat izango da. Nafarroan, alde batetik, herriaren borondatea dago, baina Sanz eta Barcina ere hor ditugu, eta zein baino zein gaiztoagoak eta euskararen etsai handiagoak dira. Hemen (EAE), berriz, hobeto gaude, noski, baina ezagun da euskararen eskubidea behin eta berriz zapaltzen dela. Gainera, hor daude Del Olmo eta Garzon eta abar, jo eta ke nondik helduko eta hondatu-ko gaituzten. Beraz, egoera ez dago, inondik ere, bermatua; dudarik gabe, duela 50 urte baino askoz hobea da... Ikastolek, Dereduek eta ETB Iek ere garrantzia izan dute, besteak beste. Gazi-geza da, alde batetik, aurrerapauso positiboak ezin dira ukatu, baina, bestalde, mehatxuak, hankatrakak eta beste hor ditugu.

Elebitasunak ez du lagunduko?

Ziurtasun guztiaz esan daiteke, hizkuntza batek ez baldin baditu lurraldetasun eskubideak, kondentatua dagoela. Hemen ez daukagu eskubide territorialik, eta pertsonalik ere ez, egia esan; nahiko farsa da hemen dagoen eskubide pertsonala, eta are gehiago Nafarroan eta Iparraldean. Egoera honetan euskarak ez dauka zer eginik; orain eusten ari gara militantzia handia dagoelako. Esaten denaren kontra, euskaldunok dexente militanten garelako. Kontua da erdaldunak gehiengo direla; horiek denak kontra ditugu; kon-



ARGIZAIOLA saria jasoko du Txillardeggi, euskararen alde egindako lanarengatik. (X. URBE/ARGIZAI PRESS)

rra, *de facto*, ez dut esango hizkuntzaren kontra daudela. Erdaldun elebhar mordo hori hor dagoen bitartean ez dago zer eginik.

Euskal gazteria nola ikusten duzu hor?

Orain gauzak gazteen artean askoz hobeto daude. Gu Francoren umeak izan gara, eta gure garaian oso zaila zen euskararen egoeraz konturatzea, hizkuntzaren alde egitea, eta baita ikastea ere. Orain ez da horrela: sortu dira ikastolak eta era bateko zein beste batasunak, AEK, euskarazko telebista... eta horrek egin du bere fruitua. Ez da bakarrik inpresioa: neurketek ere erakusten dute zaharrek baino askoz ere maizago egiten dutela euska-

raz gazteek. Hori ez da egia, adibidez, basenitarraren artean edo Baztanen; baina euskara berreskuratzen ari den herrietan, esaterako Laudion edo Lizarran, bai, errealitatea da.

Literaturari heltzeak, diotenez zuk idatzi zenuen euskarazko lehengo nobela modernoa; zein iturri zenituen horretarako edo zerk bultzatzen zintuen, nola izan zen hori?

Nik garai horretan asko irakurtzen nuen literatura—orain baino gehiago, zoritxarrez—, eta pentsatu nuen zerbait egin beharra neukala euskaraz. Ferrolera soldaduzka egitera nindoala, Knut Hamsun-en *Pan* nobela euskaratzeko asmoa neukan, eta horixe esan nion Koldo Mitxeleneri, eta hark esan zidan:

«Zuk ez duzu zerbait irzuli behar, zerbait idatzi behar duzu». *Pan* liburuarekin joan nitzin Ferrolera, hasia neukan itzulpena, baina pentsatu nuen: «Mitxelena emandako agindua edo debekua errespetatu behar badut, *Pan* alde batera utzi eta zerbait pentsatzen hasi beharko dut. Soldaduzkako ordu libreeran, Ferrolen bertan idatzi nuen *Leturiaren egunkari eskutua*, eta, jakina, berrikuntza izan zen euskal literaturan, zeren eta ordua arte nik dakidala ez zegoen ia ezer. Bai, zerbait berrria izan zen.

Hala ere, literaturari ez diozu hainbeste denbora eskaini. Horren frustraziorik ba al duzu? Eta kritikek eragina ba al dute horretan?

Leturiaren egunkari eskutua eta *Peru Leartzako* elkarren segidan ateratu nuen. Gero hemendik hanka egin behar izan nuen, eta giro horretan ez zen erraza liburuak egitea. Hala ere, 1968an idatzi nuen *Elsa Scheelen*. Kritika izugarri kontrakoa izan zuten. Izan ere, orduan oso modan ziren Hego Amerikako autoreak, eta ni ez nintzela hor sartzen eta hirugarren pertsonako idazkera hori guztiz desfasatua zegoela... Orduan erabaki nuen ez idaztea gehiago nobelarik, eta abandonatu egin nuen, egia da, eta horrela izan zen; gero, *Hatzeak* bestaldetik egin nuen, baina ez da nobela, eta geroago idatzi nituen *Exkizu* eta *Putzu baina ez dakit*... Orain saiatuko naiz beste zerbait egiten ea...


Bai?

Bai, bai, orain nobela batean pentsatzen ari naiz. Hasi naiz idazten, gainera, baina horrek ez du esan nahi bihar aterako denik. Nahiko animatua nago, erdimez, esaten zen bezala: Ikusiko dugu berriz ere ea honetan esaten didaten hobe dudala isilik gelditu.

Azkenik, momentu politikoak galdetuko dizut; Aralarren kongresua, Otegiaren azken adierazpenak... itxaropenik pizten al duzu?

Bai, Aralarren azken kongresuan erakutsi dugu elkarriketaren alde gaudela eta su-etena behar dela... Hori guztia gero eta gehiago ari da zabaltzen euskal gizartearen, eta ona da. Bestalde, nik uste dut, belodromoko hitzaldia fede onez eta buru argiz irakurtzen baldin bada, argi dagoela Herri Batasuna su-etena eskatzen ari dela; sinetsita baitaude aspaldi honetan ETAK arazo gehiago jartzten dituela, konpontzen dituenak baino. Orain lehenengo pausoa litzateke partiduen legea deuseztatzea, horrela euskal abertzaletasunean eralduko den mugimendua nik uste dut Lizarran-Garazikoa baino garrantzitsuagoa izango dela.

ALBOKA



GARI



EPERRA



TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON



OSKARBI



IMANOL

